

ARITZ GORROTXATEGI

Amua



Munduaren mekanika

Harresirik gabe dabil argia
berde minaren mugan,
txorimalo gisa zintzilik
arropen artean.

Eguzkirantz hazten da
haragia, laztan bila,
katuka ia, isil,
jolasean dabil
zure gorputzari
nabar ukitua emanaz.

Egun berria dugu deika.
Asteazken gordin.
Lanera zu, lanera ni.
Itsasgorak irentsiko du
izaretan biok
utzitako hutsunea.

Ezin dugu geratu
munduaren mekanika,
atzeratu baino ez.
Logela honetaz landa
ez dugu eskumenik.
Hauteskundeak

galdu genituen,
zentsura-mozio bat,
ez zait besterik bururatzen.

Argia gorputzean

Pauso galdu baten sua
haragia pizten. Gero,
norbaiten zati izatea,
barreneraino sartu,
hesi-kaiolak hautsi,
lorea agortu arte.
Ez kezkatu, bihar ere
haziko da belarra.

Geu baino ez gara izango
dardara honen jabeak.
Munduko jainkoek ere
ezingo digute kendu.
Ez galde nongoa naizen,
bete dezagun
hitzartutakoa:
argudiorik gabe
elkar maitatzea,
laztanei arrazoirik
ez bilatzea,
isiltasun adostuan
hondoratzea.

Beharbada,
hori izan daiteke argiak
gure gorputz bietan sartzeko
duen modu bakarra.

Zaldia igaro zen labore-lurretatik

Zaldia igaro zen labore-lurretatik
pauso motelez, presarik gabe.
Upel bat ekarri zuen itsasoak,
dozena bat sagar uretan kulunka,
tantaz tanta.

Betiko galderek erein dute lurra.
Ez dakit zer aterako den...
Bitartean, hazia dut landatzen
zure baitan. Mamia
eguzkira jarrita, taupaka.

Zure soinekoa harrian zintzilik,
oinutsik zu, goiz partean
igerilari, esne zurian murgil,
eta ni fruta jaten, zuri begira.

Jainkoa ere hil bazen,
zergatik ez zentauro eta minotauroak?
Ez gara inorenak, ez gaude zorretan
inorekin. Bakarrik gaude.
Ez ezeri lotu, haizeak pitz dezala
gure ile urdindua argizko hesian.

Hain zen dena arina...

Hondartza luzatuz zihoan,
zerua, orein-buru bihurtuta,
hegoalderantz adarka.
Plastikozko sandaliak
uretan igerian,
jaberik gabe.
Muinoan gora bizikletan
txirrindulari bat, edanda,
neskato bat itsasertzean
hondarrarekin hizketan.

Ondo gogoan dut
non geunden orduan,
argazki bat ere
atera genuen.
Kanpalekura ez zen
Agamenon etorri.
Zu ez zinen Briseida,
ezta ni ere Akiles.

Zeta beltzeko olatuek
katu antzeko zalutasunez
laztantzen zizkiguten oinak.
Zifra bat hitz eman genuen,
elkarrekin igarotzeko.

Barrezka hasi ginen gero,
burutazio haren xalotasuna
zela medio.

Txalupa bat ere bazegoen.
Soineko bat ababorrean,
gorputzaz galdezka.

Hain zen dena arina...
Heriotzarik ez balego bezala.

Bizitzaren amua

Zer epika dago
inoiz mugitu nahi
ez izatean?

Gu ere ez gara
lehengo berak.
Bidean galdutakoa
zerrenda dezakegu,
baldintza bakar batekin:
abokaturik ez,
debekatuta dago
inori ezer egozte.

Badira ispiluan
ikus ezin daitezkeen
ertz eta aldaketak,
geure burua salbatzeko
asmatutako gezurrak.
Ez zinen bezalakoa
onartuko zaitut,
ogi labetik atera berria.

Olatuekin
neur ditzakegu
lehengo begiradak;

izara izerdituak
eta izterretako zauriak
urarekin garbitu.
Aparretara printzipioak!
Itzali museoko argiak.

Basoaren suak
hazi gori berri bat
eskatu du.
Odisea hau ez da
inoiz amaitzen,
noranahi garamatza,
ez al zen bidaiatzea
azken helburua?

Zer egiten duzu hor geldi,
txaluparia zain dugu.
Bota du berriz bizitzak
bere amua, arku bila
dabil gezia.